

Uztailaren 19ko 46/1989 Foru Araua, Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergarena

(A.L.H.A.O., 99. Zk. 1989-08-28koa, Gehigarria)

1. Artikulua

(...)

3. Honako hauek ez dira zergaren pean egongo: ezkontideei ezkontza-sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, hauen ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak, eta ezkontideei beren ondasun komunak ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Xedapen berdina aplikatuko zaie, aurreko paragrafoan aipatzen diren kasu berberetan, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten dituzten ekarpenak, esleipenak eta eskualdaketak.

Honako hauek ere ez dira zergaren pean egongo: ezkontideen arteko, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideen arteko edo seme-alabentzako ondasun higiezinak, eskualdaketak, ezkontza-baliogabetzea, bananketa edo dibortzioa geratzekotan edo izatezko bikotea amaitzekotan epaiak betetzearen ondorioz eginak, edozein delarik ere ezkontza erregimen ekonomikoa edo ondare erregimen ekonomikoa, hurrenez hurren.

6. Artikulua

(...)

4. Baldintzaren bat tarteko duten egintza edo kontratuetan, berauen kalifikazioa Kode Zibileko preskripzioen arabera egingo da. Etendurazkoa balitz, zerga ez litzateke likidako harik eta berau bete arte. Baldintza deuseztapenezkoa balitz, zerga, ordudanixe exigituko litzateke, baldintza bete dadinean, bidezko itzulketa aurreko ataleko erregelaren arabera.

Testamentu indarrez uzten diren jaraunspenetan, agintearen erabateko erabilera egiten denean edo bera ezabatzeko gainerako arazoietakoren bat sortzen denean zergaren zortzapena egingo da.

5. Alkar-poderosoan edo ordenatze-ahalen pertsona jakin baten alde zerga honi loturiko jaraunspenaren ondasunen gozameneko eskubidea eskuetsiko balitz, ahala erabili ez dezan bitartean, gozamen horren likidazio bikoitza egingo da: bata, behin behinekoa, ondorengotza irekitzean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari

buruzko arauen zioz, eta bestea, behin-betiko, alkar-poderoso edo ordenatze-ahala erabiltzean, aldi baterako gozamenari buruzko arauen arabera, kausatzailearen heriotza gertatu zenetiko aldiaren zioz, eta konturako sarrerentzat hartuko da behin-behinekoaren zioz ordaindutakoa, diferentzia, gozamendariaren aldekoa balitz, beroni itzuliko litzaiokeelarik. Aldi baterako gozamenaren ziozko behin-betiko likidazio hau, alkar-poderoso edo ordenatze-ahalaren ekitaldiaren zioz edo hura azkentzeko gainerako karien zioz jaraunsle gertatu direnean egitean egiztu behar izango da.